

Elissalde, Urkijo eta urgazletatik Ormaetxea. Otoitzez asi da.

I.—Etxegarai jaunak esan digu, Madriden aixtian gertatu dana. Euskaleñifik joanak ziran ainbeste jaun, euskal-bazkun askoren izenean (gure izenean Etxegarai bera) Ministro jaunari eskatzera : emengo Ikastoletan, bertako irakasleak euskeraz erakutsi ditzatela irakasgai guziak. Esan digu zein afera on egin zien Ministroak.

II.—Urkijo jaunak, Laffitte apaiz gaztearen liburu-txo baten beñi eman digu. Liburu onen izena : *Loretegia*. Antziñatik asirik onuntz arteko euskal-idazleen lantxo batzuek agertzen ditu. Euskaltzaindiak 25 liburu-txo erosiko dizkio.

III.—Azkue jaunak lan eder bat irakuri digu: *Eronkariako euskalkiaren berezipen batzuek*. Gure *Eusker*a-n argitaratuko da.

IV. Apaiz gazte baten idazki bat irakuri degu ta ez degu aitzakotzat artu.

Otoitez amaitu da batzaraldia.

Iruña-n, Aldundi-Jauregian, 1931-ko Jofailaren 30-an.

Aureko batzaraldian bildu ziran jaun berak eta Anjel Irigarai osagilea eta urgazlea datoz. Otoitz egin da.

I.—Iztegirako itz batzuen zerenda aztertu degu: oni dagozkion beste izpidetan igaro da batzaraldiko asti geiena.

II.—Ondañoa'ko *Euskaltzale-Bazkunak*, maitetsu zitzaigun gure Agiré Domingo jaunaren aomenez jai-aldi bat egin nai luke. Ortarako Euskaltzaindiaren sorospidea nai luke; guk iñolaz ezin uka. Euskal-

tzaindia, S. Pedro egunez egingo dan jaialdi ontan, bere ordekoz, antxe izango da. Ordekoak : Azkue, Eguskitza ta Ormaetxea.

Elizako itzaldia Eguskitzak egin lezake; beste itzal-diak Azkue ta Ormaetxeak.

Beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batza-
faldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1931-ko Ori- laren 28-an.

Bildu diran euskaltzainak abek dira : Azkue maipuru, Urquijo, Olabide, Eguskitza, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoizez asi da.

I.—Lakonbe jaunak Aldudeko kontu zar batzuek irakuñi dizkigu.

II.—Iztegirako, itz beñiak sortzen jardun degu ba-
tzañaldiko asti guzia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1931-ko Ori- laren, 29-an.

Bildu diran euskaltzainak abek dira: Azkue maipu-
ru, Urkijo, Olabide, Eguskitza, Altube, Intza, Lakon-
be, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoit-
zez asi da.

I.—Azkue jaunak lan au irakuñi digu : *Particula-
ridades del dialecto roncalés.*

II.—Iztegi-lanean jardutute euskaltzain jaunak ta
otoitz egiñik amaitu da batzañaldi au.